

Garean-Jarduerak

LIZARRAN KANTUZ

Maiatzak 30
Ekainak 27
20.00etan Baxenabarra kaletik abiatuta

IRAKURLE KLUBA

Maiatzak 28
Zulo bat uretan, Iñigo Aranbarri.
(idazlea izanen da)
19:30ean Lizarrako liburutegian

IRAKURRI, GOZATU ETA OPARITU

Kanpainak jarraitzen du ekainaren 30era arte.
Informazioa: Lizarrako Liburutegian.

GAREAN FESTA

Maiatzak 27
17:00etan Talo-tailerra, Gure Hizkuntza
Elkartean.
18:00etan Txokolipuinak, La Bota Elkartean.
18:00etan Bertso Eskolaren ikasturte bukaera
emanaldia, Gure Hizkuntza Elkartean.
19:00etan Garean-en ikasturte itxiera
eta Kantuz Txikiren aurkezpena,
La Bota Elkarteko plazatxoan.



Hauteskundeak, hauteuskaldunak

*Hauteskundeak aurten eta hautagaiak
hautesleei hautestontziak betetzeko eskatuz.
Zail zaizu hautematea zein duzun aukera kuttun?*

2015 honetan ez bat ez bi baizik eta, gutxienez, hiru hauteskunde deialdi izanen ditugu gurean. Maiatzaren 24an aurrena, Lizarran bestondoaren arriskua gainean dugula, gure udalak eta Iruñeko Legebiltzarra zinegotziz eta legebiltzarkidez beteko ditugu.

Herritarren ordezkari izateko aurkezten dira jendaurrean hautagaiak eta lau urterako botere handia eskainiko diegu: baliabide ekonomikoaren eta erakundearen kudeaketa, legeak adostu, arauak ezarri...

Lizarran kasu sei hautagai-zerrenda aurkeztu zaizkigu, ehun zinegotzi-gai baino gehiago eta,

aukera probestuz, Lizarrako hautagai euskaldunak elkarriketa txikia egitea deliberatu dugu.

*...hautagai euskaldunei
elkarriketa
txikia egitea
deliberatu dugu...*

Ez hainbertze ordezkatzeko duten alderdiek proposatzen dutena ezagutzeko, nahikoa lan egingen baitute haiek bereaiek horretan, baizik eta pertsona bera ezagutzeko.

Elkarriketa honek alde bikoia izan nahi du baina, batetik hautagaiari ezagutzera emateko posibilitatea ematen diogu eta, bertzetik, hautagaiaren gainean arduraren fokua jartzen dugu. Euskaldun izateak bistagarritasun gehigarria ematen dion heinean emanen baitio ardura handiagoa.

Euskaldunontzako erreferente politiko izateko asmotan izanik, eredugarria beharko luke hauen jarduna hizkuntzaren alorrean ere. Izan hau egunean eguneko erabileran zein Udalean hizkuntza-politikari buruz jardutean.

Hona hemen ondoko galdetegia erantzun duten hautagaiak, alderdi bakoitzeko bana UPN eta PP salbu. UPN-k adierazi digu hiru hautagai euskaldun dituztela baina ez dutela eginen galdetegia eta PP-k ez du hautagai euskaldunik Lizarran.

Galdetegia

1. Zein da zure talde politikoa?
2. Non ikasi zenuen euskara?
3. Zenbatgarren zoaz Lizarrako hautesle zerrendan?
4. Euskal hiztun izateak zertan aberasten du zure taldea, zer ematen dio?
5. Lizarrako festak dira eta kamiseta bat egin nahi duzue. Asmatu kamisetan jartzeko, euskararen aldeko lelo edo esaldia.



Saioa Urrutikoetxea

1. Ahora-Orain Estella/Lizorra (AOEL).
 2. Eskola publikoan eta institutuan. Ikasketak euskaraz egin ditut.
 3. Seigarrena.
 4. Euskara gure hizkuntza da ere, gure taldean euskal hiztunak izatea arrunt ikusten dut. Gure programan euskara lantzen dugu, euskararen erabilera normalizatzea bilatzen dugu.
- Euskaldunak gara eta horrela sentitzen gara, sentimendu horretatik euskarari dagokion garrantzia emango diogula ziur gaude.
5. "Lizarrako jaiak, euskararen alde".



Lorena Juaniz

1. PSN-PSOE talde politikoan aurkezten naiz eta zerrendaburu Ignacio Sanz de Galdeano dugu, Estella-Lizarrako alkatetzara hautagai.
2. Hiru urterekin hasi nintzen euskara ikasten Remontival ikastetxe publikoko D ereduari.
3. Bigarren noa PSN-PSOEren zerrendan.
4. Euskaldun izateak talde politikoari eusko-nafar kulturaren ezagutza handiago bat eskaintzen dio eta, aldi berean, aberasten du hiritar orori komunikatzerako eta informatzerako garaian gure Foru Erkidegoko hizkuntza koofizalean.
5. Esaldia edo leloa udalbatzan eztabaidatuko genuke hiritarren proposamen guztiak entzuteko. Proposamen horiek euskaraz zein gaztelaniaz idatzita izanen lirateke mundu guztiak kamisetaren leloa konpartitzeko.

Oharra: erredakzioan itzulia



Koldo Leoz

1. Euskal Herria Bildu.
2. Batez ere San Fermin ikastolan baina senideekin ere asko ikasi nuen.
3. Zerrendaburu.
4. Lizarrako edozein elebidunekin erosen hitz egiten duen hizkuntzan hitz egiteko aukera ematen dit. Herriko paisai kulturala aberasten dugu elebidunok, eta maila pertsonalean herritarrei beste aukera bat eskaintzen diet.
5. "Baietz zuk eta biok euskaraz mintzo?".

2011-2015 legegintzaldia

■ Lizarrako Euskara Kontseilua



Pablo Ezcurra

1. Duela bi urte Eusko Alderdi Jeltzalea kide egin nuen. Nafarroko jeltzaleok Geroa Bai koalizioaren parte gara, eta Geroa bai Lizarrako udaletxearen hautagai zerrendan nago.

2. Puy ikastetxean ikasi nuen euskara txikitan, lau urte izan nuen uste dut. DBH-an ere jarraitu nuen ikasten, baina gero duela bost urte Burgosera joan nintzen ikastera eta nire euskara

pixka bat ugertu zen. Eta orain Lizarrara buelta ta gero euskarazko liburu gehiago irakurri saiatzen ari naiz, euskara nibel ona berreskuratzeko.

3. Bigarrena naiz.

4. Nafarroan, eta Lizarran noski ere, bi erronka dauzkagu euskararen inguruan: ofizialtasuna lortu herrialde osoan, eta euskararen erabilera berreskuratu. Eta gure talde politikokoan erronka horien alde lan egiten dugu, eta jarraituko dugu. Geroa Bai-ren zerrendan euskaldun asko gara, eta helburu horien alde lan egingo dugu udaletxean. Harro esaten dugu euskaldunak gara eta euskaltzaleak ere.

Niretzat Europako hizkuntz zaharrena hitz egitea harrotasun handia da, gurea delako.

5. Uste dut argi esan behar dugu, eta adibidez esaldi bat "Jaietan euskaraz ere" edo horrelako zerbait ona izango dela.

Legegintzaldi honetan, 2011tik 2015era hainbat mugarri izan ditugu hizkuntza-politikaren alorrean Lizarrako Udalean. Horrela ondokoak ditugu zeresana eman duten hainbat.

Ze Berri aldirak postontzietan banatzeari utzi zion Udalak (2011ko urrian), Remontibal bi eskolatan, D eredu batetik eta bertzeak bertzetik, banatzeko saiakeraren aurka agertu zen udalbatza (2012ko urtarrilean), Euskararen Ordenantza onartu zen udalbatza (2013ko maiatzean), euskara ikasteko diru-laguntza sistema (2013ko ekainean), "Zorionak" argi-kartela Foruen enparantzako kioskoan (2013ko abenduan).

Legegintzaldian zehar maiz agertu da kexu oposizioa Udal Gobernuarekin, eta bereziki, Euskararen Ordenantzaren ez betetzearekin. Adibidez Alkateak euskarazko akta ofizialak sinatzeari uko egitearekin, hizkuntza-paisiarekin edota euskarak izan duen balio eskasarekin udal-lanpostu deialdi gehienetan.

Euskararen Gizarte Kontseiluak Anaitasun egin jaialdian euskal komunitateak behar dituen lau zutabeak zehaztu zituen: lege marko egokia, planifikazioa, inbertsioak eta herri gogoia. Lau alor, lau zutabe, euskararen etxeari zutik eusteko eta berau zabaltzeko.

Erran daiteke Lizarrak, eskumena duen horretan, lege marko egokia adostu zuela udalbatza. Ezin gauza bera erran baina honen gauzatzearekin. Baliabide ekonomikoaren aldetik ere, azken legegintzaldietan 25.000 eta 33.000 euro artean ibili da euskarazko proiektuetara bideraturiko dirua. Aurrekontu osoaren % 0,3 inguru. Kontseiluak berak gomendatzen du administrazioek % 2 inbertitu beharko luketela euskararen hizkuntza-politika egokia burutu ahal izateko.

Planifikazioan ere hutsune, zutabe nagusi bakarra dugu beraz, herritarren gogoia. Euskara gero eta gehiago entzuten da kalean, urte osoan zehar eta ez udan soilik, aurtengoa Korrikarik jendetsuena izan ote dugun komentatu dugu garagardo artean eta euskaltzaleen komunitatea zena euskal komunitate bilakatzen ari zaigu.

Jatetxea

Volante

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak

Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695


LIZARRA

Lorategi mantentze-lanak
LOREZAINITZA

Valdelobos, 35
31200 ESTELLA-LIZARRA
T. 948 554 067 - F. 948 395 112
M. 606 980 679
lizarrard@hotmail.com



Gareanen ikasturte bukaerako jaia

Ikasturte bukaerako jaia? Zer da hori? Irakasle eta ikasleen arteko partida futboleant? Ordu bat lehenago amaituko dira saioak?



Datorren maiatzaren 27an, asteazkena, ikasturteko azken Txokolipuinak saioa eta bertso-eskola saioak izanen ditugu. Hori dela eta egun berezia antolatu nahi izan dugu, baina goazen aurrena bi egitasmoon urtea laburbiltzera.

Bertso eskolak, iaz bezala aurten ere hiru taldek osatu dute. Haurrek asteazkeneko ordu beteko saioak izan dituzte bi taldeetan banatuta eta helduek ordu eta erdikoa, asteazkeneko euskaltegian. Haurren taldeetan aurten dozena bat haur ibili dira, bederlatzi eta hamahiru urte bitartekoak denak.

Baina bertso eskola ez da mugatu ikastorduetara, haur zein helduek beste hainbat ekimenetan parte hartu dute, besteak beste azaroan bertso-afaria antolatu zuten Amaia Agirre eta Alaia Martin bertsolariekin, otsailean Agate Deunan abestu zuten eta Nafarroako bertsolari txapelketaren final-laurdenak ospatu ziren Lizarran, martxoan Bertso-korrika ikastaroa eta emanaldia izan genituen... Ikasturte oparoa beraz.

Txokolipuinak ere ez dira atzean geratu eta urtean zazpi saio izanen ditugu. Hitzordua, hileko azken asteazkena 18:00etan. Egitasmo honek urteak daramatza emaitza apartak ematen eta aurten hilero berrogei haur baino gehiago elkartu ditu Bota elkartearen.

Haur Hezkuntzako 3. eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 mailetako haurrek gozatu dute belarria eta imajinarioa piztu zaie ipuin kontalarien jardunari adi-adi jarraituz.

Hori dena ospatzeko hitzordua dugu datorren maiatzaren 27ko asteazkenean: 17:00etan haurrentzako talo-tailerra Gure Hizkuntza elkartearen; 18:00etan Txokolipuinak (Bota elkartearen, beti bezala) eta, aldi berean, bertso eskolaren agurreko emanaldia; eta, azkenik, Bota elkartearen pareko plazatxoan ikasturtearen agurra eta egitasmo berri baten aurkezpena: Lizarran Kantuz Txiki.

Euskararen eguna Abartzuzan

Goizean haurrak protagonista, arratsaldean herriak eta gauean gautxoriak.

Datorren maiatzaren 30ean, larunbata, Irriherri euskara elkarteak euskararen eguna antolatu du. Urte asko dira Irantzu Mankomunitateko udalerrietan ospatzen dela jai hau eta aurten Abartzuzari egokitu zaio egitea.

Urteetako esperientziak erraztu eginen zien egitarau benetan oparoa antolatzen, 11:00etan aurreku batek emanen dio hasiera egunari eta berehala, 11:30ean, pintxo-potea izanen dugu. Bitartean, eta goizean zehar, Artisauak izanen ditugu Zugarrondo plazan eta anberria txaranga, puzgarriak eta umeentzako ekintzak pilotalekuan. Pixka bat beranduago, 13:00etan, Larragako zantzarraz.

Eguerdi partean, 14:30ean, herri bazkaria izanen dugu. Txartelak salgai Oteitzako, Villatuertako eta Abartzuzako Rural Kutxetan eta Lizarrako Euskaltegian maiatzaren 13tik 28ra, osteguna. Helduak 12 euro eta haurrak 10.

Bazkalostea eta gero, 16:30ean, dantza emanaldia izanen dugu eta segidan AEK bekaren zozketa eta gaztaren irabazlea iragarriko dira. Ondotik, 17:00etan herrien arteko herri kirolak izanen ditugu eta 18:30ean batukada. Zortzietako bingoak giroa baretu badezake ere, 20:30etik aurrerako bokatek eta, batez ere, gaueko kontzertuek (Irrikan, Hesian eta DJ Raizti), giroa bero-bero jarriko dute. Egun pasa ederra Abartzuzako herrian, animatzen?



EGITARAUA

11'00: Aurreku eta hasiera, Abartzuzako umeen eta eskolako dantza taldearen esku. Artisauak, Zugarrondo plazan.

11'30: Pintxo-potea, karpako barran. Anberria txaranga, puzgarriak eta umeentzako ekintzak, pilotalekuan.

13'00: Larragako zantzarraz taldearen emanaldia.

14'30: Herri bazkaria: txartelak erosteko: Oteitzako, Villatuertako eta Abartzuzako "Caja Rural-etan". Lizarrako Euskaltegian maiatzaren 13tik 28ra. Helduak 12 €, umeak 10 €.

16'30: Dantzak, AEK bekaren zozketa eta gaztaren irabazlea.

17'00: Herrien arteko herri kirolak.

18'30: Batuklank taldearen emanaldia.

20'00: Bingoak.

20'30: Bokatak, karpako barran.

21'00: Kontzertuak: IRRIKAN - HESIAN - DJ RAIZTI



Mundua deskubritzeko
jostailu eta jolasak

Comercio 22 • 31200 Estella-Lizarrak • 948 985 306





Foto-inkesta

Hauteskundeak

Heldu den maiatzaren 24an udal hauteskundeak direla eta, lizartarrei gai horretaz galdetzea erabaki dugu. Nori bozka emanen dioten galdetzen ez gara ausartu, isilpekoea eta norberaren baitan geratzen den kontua delako, baina bururatu zaigu zenbait galdera interesgarri:

1. Zein dira alkate edota politikari onaren ezaugarriak?
2. Zer egingo zenuke Lizarran alkate bazina?
3. Hauteskundeetan gertatu zaizun pasadizorik? Lehen aldian, mahaian egon zinelako.



Sara Trebol

1. Nire ustez garrantzitsuen zintzoa eta zuzena izatea da, horrez gain hartzen dituen erabakiak hartzean lizartar guztiengan pentsatzen duena.
2. Hamaika eta hamabost urteen arteko gazteentzat denetik falta da, ez dago ezer beraiantzat, txikiantzat eta handientzat badago, baina horientzat ez. Bestalde, txikientzako parkeak badaude baina hobeki zaindu beharko liriteke mantenimendu aldetik.

3. Behin, nire ezagun batek esan zidanez, hautes-mahaian zegoela komentu bateko mojak joan omen zitzaizkien, dirudienek kotxean gidaria eta gidariaren ondokoa besterik ez zen sartzen, furgoneta bat zelako, eta atzean eserlekunik ez zuen... Komentuko moja guztiak kotxe hartan eramanez zituzten banan-banan bozkatzera... zenbat itzuli eman ote zuen!



Irantzu Pascual

1. Beste ezaugarri batzuen artean hauexek: herrikoia dena, langilea eta zuzena izatea... Hori da orain bururatzeko zaidana.
2. Eguraldi hotza eta euria egiten duenean ez dago ezer umeentzat, ez dugu jakiten nora jo edo non sartu, etxean geratu egun osoan edo bestela kalean hotzak eta bustirik ibili behar! Ongi legoke hori konponduko lukeen zerbaitekin.
3. Aurreko hauteskundeetan hautes-mahaian egotea

suertatu zitzaidan eta egunaren amaieran bozka kontaketa iritsi zenean, sobre baten barruan hautagai zerrendaren ordean Jurramendi Mankomunitateak banatzen zituen zabor-poltsa kupoiak zeuden.



Enara Gaston

1. Herrikoia izatea, hau da, herriko ekintzetan parte hartzen duena, jendearekin ibiltzen dena, jendea ezagutzen duena, entzuteko gaitasuna duena izan behar duela uste dut.
2. Euskararen inguruko zerbaitekin egitea proposatuko nuke, euskara indartuko lukeen zerbaitekin egitea udalaren aldetik, behar bada diru laguntza gehiago emanez eta arlo horretako aurrekontuak handituz.

3. Urte batean etxe aldaketa zela eta eroldan ez zuten helbide aldaketa egin... eta han ibili ginen non bozkatu ez genekiela, mahai batetik bestera.



Iñaki Hernandez

1. Nik pentsatzen dut inportanteena bokazioz lan egitea dela, zeure herriaren alde zerbaitekin egin nahi izatea. Ez du tartean interes ekonomikorik izan behar, ezta interes pertsonalik ere.
2. Gauza asko falta dira, baina bat aipatzekotan gaztetxearen gaia aterako dut. Uste dut gaztetxeak autogestionatua izan behar duela edota ahalik eta parte hartzaileena, ez dena udalak erabakitakoa.

3. Niri ez zait ezer berezirik gertatu inoiz, nire lagun bati bai baina ez da kontatzeko modukoa ja, ja, ja... Hori bai, mania bat daukat, hauteskundeetan nire bozka papera beti etxetik eramaten dut.

KATXETAS
Taberna

Estudio de Gramática, 2
31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010



LIBURUDENDA

INO

PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2
Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA



GARI eta SEI

ANDER SOLANO



MAIATZAK 24, KRISTON AUKERA DUGU SEI!

DAGOENeko NAFARROAKO ERRESUMAN URDURITASUNA NABARI DA!




VADE RETRO SATANAS!



denborapasak

Gurutzegramak



Udala eta herria

Goitik behera:

1. Hiriko kale eta eraikuntzen plangintza
2. Isunak jartzen dituztenak
3. Lizarrako lehenbiziko alkatesaren izena

Ezker eskuin:

4. Gerratean hil zuten Lizarrako alkatearen izena
5. Oraingo Nafarroako lehendakariaren izena
6. Oraingo Lizarrako alkatesaren izena
7. Urteko diru sarreraren eta irteeren egitasmoa
8. Lizarrako zinegotzi kopurua

Euskalglifoa

Demokraziaren sorrera



-E

Bodegas Lezaun
Asador-Jatetxea

Enoturismo
Bisita gidatuak
Ardo-dastaketak

Lakar (Deierrri) NAFARROA
info@lezaun.com - www.lezaun.com
Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

Orreaga
Kafetegia

Denon topagunea.

San Andres kalea • Lizarra

Puy eguna 2015 Gazteriaren jaiak

Maiatzak 23, 24 eta 25

MAIATZAK 23, LARUNBATA

- 11:00. Udaletxea. Erraldoi eta Buruhandien, Gaiteroen eta txistularien irteera.
- 12:00. Koroatze plaza. Suziria "Lizarrako Gazteriaren Festa" iragartzeko, Jota Zaharra Francisco Beruete, Larraiza eta Virgen del Puy y San Andres dantzariekin. Jarraian japoniar-lehergailuak. Jarraian kalejira "Virgen del Puy y San Andres" eta Portugaleteko "Gaurko Gazteak" dantza taldeekin.
- 12:00etatik aurrera. Kalejira "Alkaburua" fanfarrearekin.
- 12:30-14:30. Kalejira Erraldoi eta Buru Handi, Gaitero eta Txistulariekin.
Kalejira txarangarekin
- 14:30. Foruen plaza, Herri-bazkaria "VII. Gazteriaren Eguna".
- 17:00. Irteera zezen-plazarantz, txarangarekin.
- 17:30. Zezen-plaza. "Estella-Lizarrako I. Grand Prix-a".
- 19:30. Irteera zezen-plazatik, txarangarekin.
- 20:00. Entzierroa.
- 20:30-22:00. Foruen plaza, "Larrain Dantzaren XV. Eguna".
- 22:00. Foruen plaza, zezenuzkoa.
- 23:00-02:00. Foruen plaza, Kontzertuak:
Rojo Vivo Reggae Band



MAIATZAK 24, IGANDEA

- 08:00. Entzierrotxoa
- 09:00. Entzierroa.
- 10:00-19:00 Koroatze plaza. Artisautza postuak.
- 17:00. Koroatze plaza. Ekitaldia haurrentzat.
- 17:00-19:00. Zezen-plaza. Ongintzako errektoriaren Txapelketa, "Alcer" elkartearen alde.
- 20:30. Foruen plaza, kontzertua: "Gregario de Luxe".
- 22:15. Foruen plaza, zezenuzkoa.

MAIATZAK 25, ASTELEHENA

- 08:00. Dianak gaitero eta txistulariekin.
- 08:30. Dianak Estella-Lizarrako Musika Bandak eskainita.
- 10:30. Irteera Udaletxetik, Lizarrako Udal-korporazioa, Segizio Ofizialarekin lagunduta.
- 11:00. Puyko Ama Birjinaren Basilikan Meza.
- 12:00. Koroatze plaza. Haurrentzako ikuskizuna: Madiber, Magia eta dibertsioa.
- 14:30. Santiago plaza. Herri Bazkaria "VII. Txerrikume-gorespen Eguna".
- 17:00. Santiago plaza. Musikaldia "Chuchin Ibañez".



kotarro

32. zenbakia

Julio Ruiz de Alda, 6 behe, ezk.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak



Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700



paper birziklatua

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluaren edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.